


1903

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXII garren urtea)

ZERUEBETAKO ERREGIÑA AMA BIRJIÑA GUADALUPEKOARI



Berrogei pezetako aldeera eta bitezarra Irun-en irabazitako moldaera

Guadalupeko Birjiña Ama
emenchen Zure oñetan,
kanta aldicho bat Zuretzako
nainuke egin benetan;
lagun zaidazu argitasuna
bigaldurik Zerutikan,
zergatik nere zentzuan ezta
illuntasuna baizikan.

Zure izena bakarrarekin
begiyak zaizkit bustitzen!
nere biyoztak oso egiyaz
beti baizaitu maitatzen,
beragatikan kantachoabek
Zuri dizkitzut donkitzen,
bada atsegin aundiyagorik
eztet bestela sentitzen.

Ondar ale bat besterik ez naiz
zure oiñperako diña,
alaz guziyaz maitatzen dezu
ondar auşe bada fiña;
lore sorta bat eskeintzen dizut
biyoz neriak egiña,
gauza guchida bañan ar nazu
Zerubetako Birjiña.

Gau illunian izar ederrak
duben bezela poztutzen,
Zure oroitzak gure naigabe
guziyak ditu aztutzen;
zerbaitengatik pekatariyak
Ama baitizu deitutzen,
ala Zerutik dei ura dezu
berialase aitutzen.

Mendi gañean elizacho bat
bada Zuri donkitua,
¿zeñek eztaki zenbat mirari
dagon bertan gertatua?
aruntza baita eriya juaten
naigabez betetakua,
Zuri erregu egin ezkeru
laister dago saritua

¿Zein ezta juango erregutera
orlako Ama onari,
gau eta egun Zeruetatik
laguntzen ari danari?;
berak itzcho bat egin ezkeru,
bere Semecho Jaunari,
osasuna ta pake santua
bigaltzen dizkigu guri.

Jaungoiko onak jarri zinduben
Ama gure bitarteko,
pekatariyen erregu birez
Semea bigundutzeko;
Birjiña ona nola ez dizu
¿Seme orrek adituko?
pekatariyak ezperantzarik
ala ez baitu galduko.

Zeñek lezaken Zeruetara
itzuli egin mundutik,
Birjiña ona deitu nazazu
igotzeko bai bertatik;
Zure baimena izan ezkeruz
errez da sartzen atetik,
¡O! zer zorion paregabea
neretzat ordu artatik.

Bañan barkatu Ama maitia
¿zer arinitzan esaten?
pekatariya izanikanen
ainguru nitzan egiten,
gogoratzia erreza baita
¡bañan zer zalla izaten!
naitasunezko ametsak ditu
nere zentzuak somatzen.

Agur parerik gabeko Ama
Agur liriyo garbiya,
gure biyotzen intza gozoa
izar dizdizalariya;
umildurikan eskatzen dizut
nitzaz izan errukiya,
egun batian irichitzeko
Zerubetako Gloriya.

ROSARIO ARTOLA.

